# Denbora-

## 1 Hitz zuzenaren bila

Oporretan egon arren, irakasleak agindutako euskarako etxeko lanak egin behar ditu Eneritzek. Hiztegia, ordea, etxean utzi du ahaztuta. Hitz hauetatik, zeintzuk dute h eta zeintzuk ez? Aukeratu egokia








## 2 Labirintoa

Aitor egarri dago, eta edalontzia hartu du armairutik. Hozkailuan begiratu, eta ur pitxerra ez dagoela ikusi du. Lagunduko al diozu topatzen?

## 3 Puzzlea osatu

Trebea al zara puzzleak osatzen? Hala bada, ez zaizu askorik kostako hau osatzea.









# -pasak




## 4 Lotu bikoteak

Mikel primeran moldatzen da kainaberarekin; arrain dezente ekarri dizkio amari. Lagunduko al diezu mota berekoak batera sailkatzen. Horretarako, arrainaren sabelean dauden ariketak egin beharko dituzue.

**Erantzunak:** **1.-** Irmotasun, horixka, elezuri, dohainik, izukor. **3.-** 1-i, 2-g, 3-b, 4-e, 5-a, 6-b, 7-c, 8-f, 9-d. **4.-** a-h, b-f, c-d, e-g.





## 5 Kopiatu laukiz lauki

Karramarro ugari ikusi ditu Maddik hondartzan, eta horietako bat margotuko du. Kopiatuko al zenuke, laukiz lauki, hark egindako marrazkia?

# Jolasa

## Zotzen dorrea



Pultsu ona al duzue? Hala bada, primeran moldatuko zarete jolas honetan. Botila baten aho gainean zotzak jartzean datza, eta ondoren kentzean. Gehien jartzen eta kentzen dituena izango da irabazlea. Nahi adina lagunek joka dezakete.



1 Hutsik dagoen botila bat hartu, eta kendu tapoia. Ondoren jarri laua den leku batean: mahai bat, esaterako.



2 Botilaren ahoan zotzak jarri behar dira zeharretara. Hori bai, ez erortzeko ahalik eta polikien egin behar da. Zenbat eta gehiago jarri, hobeto



3 Zotz gehiago jarri ezin badira, edo eta erortzekotan daudenean, kendu egin behar dira. Berriro ere, kontu handiz aritu beharko da.

4 Aldi bakoitzean, jokalariak nahi adina zotz jar edota ken ditzake. Zenbat eta zotz gehiagorekin saiatu, jolasa zailagoa izango da.

5 Jokalari bakoitzak jarritako eta kendutako zotzak batu, eta gehien batu dituena izango da irabazlea. Soilik kendutako zotzak kontuan hartuz ere jolastu daiteke.

